



CENTRO INTEGRADO **ESCUELA
DE EDUCADORAS Y EDUCADORES**

HEZITZAILE ESKOLA
IKASTETXE INTEGRATUA

GOI MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOA

Animazio Soziokultural eta Turistikoa

GOI MAILAKO TEKNIKARI TITULUA

1986az geroztik, gure Eskolak gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzearen profesionalak prestatzen ditu.

Gure Hezkuntza Eskaintza osoa "Oinarrizko hezitzailea" kontzeptuaren bidez egituratzen dugu. Ezaugarri komun eta funtsezkoenen aldeko apustua egiten dugu pertsonekin eta taldeekin zuzenean esku hartzeko, gizartearen eta hezkuntzaren ikuspegitik.

Ezaugarri komun horiek harreman kualifikatu batetik pertsonekin egiten den lanaren eskakizunekin lotuta daude.

Horregatik planteatzen dugu "Jakitea", "Egiten Jakitea" eta "Izaten Jakitea"-ren beharra. Helburu honekin lotuta, eskaintzen ditugun lanbide heziketako ziklo guztietan Enpresako Praktikak egiten dira lehen mailatik hasita, Metodologia Aktiboak erabiltzen ditugu eta ikasleen Laguntza Pertsonalizatua egiten dugu.

MODALITATE PRESENTZIALA **GAZTELERAZ**



www.escuelaeducadores.educacion.navarra.es

Palacio Ezpeleta - Calle Mayor, 65
31001 - PAMPLONA
848 43 09 70



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Hezkuntza Departamentua
Departamento de Educación

TodoFP.es

GAITASUN OROKORRA

Titulu honen gaitasun orokorra da gizarte, kultura eta turismoko jardueren sustapeneko esku-hartzeak programatzea, antolatzea eta ebaluatzea eta, horretarako, pertsona eta talde hartzaileen parte-hartze aktiboa sustatzea, eta profesionalen eta haien ardurapean dauden borondatezkoen jarduketak koordinatzea.



ANIMATZAILE SOZIOKULTURALA ETA TURISTIKOA

Esku-hartze Sozioedukatiboko Profesionala da, eta Taldeko Ekimena sustatzen duen Agente Sozial gisa esku hartzen du,

ikerketa, azterketa, hausnarketa eta antolaketa-ekintzak erraztuz. Gizarte-arazoekiko sentikortasuna duen profesionala (konprometitua), pertsonak beren ingurunean erlazionatzen saiatzen dena, eta, horretarako, partaidetza-prozesuak erabiltzen dituena eta komunitate edo lurralde-arazoak konpontzen laguntzen duena.

Bere esku-hartzea, nagusiki, honako eremu hauetan gauzatzen da:

- **Gizarte-eremua:** Bere parte-hartzeak asoziazionismoan eta giza harremanen hobekuntzan ditu ardatz. Arlo hau honako hauetan garatuko da: gazteen etxeak, gizarte zerbitzuak, elkarte eta mugimendu sozialak, zentro komunitarioak, baita eguneko zentroetan behar bereziak dituzten kolektiboak, egoitzak, dibertsitate funtzionala duten pertsonen erakundeak eta abar.
- **Eremu soziokulturala:** Sormena, adierazpena eta kultura eta arte-sorkuntza garatzera zuzenduta dago. Lanerako gunek ohikoenak honako hauek izango dira: kultur etxeak, kultur zentro eta ekipamenduak, eskola eta tailer artistikoak, museoak eta liburutegiak, eta abar.
- **Gizarte eta Hezkuntza-eremua:** Bere jarduera ikaskuntzarako, etengabeko prestakuntzarako, aisialdiko hezkuntzarako eta abarretarako motibazioa garatzera bideratuta dago. Eremu profesional hori honako hauetan garatuko da: ludotekak, baserri-eskolak, aisialdiko zentroak eta ekipamendua, eta abar.
- **Turismo-eremua:** Parte hartzen du taldeak dinamizatzeko ekintzetan, turismo etiko, justu edo jasangarri deritzona garatzeko.

LANBIDE JARDUERAK

Titulu hau lortzen duten pertsonak komunitatearentzako zerbitzuen sektorean egiten dute lan: garapen komunitarioan eta gazteen informazioan; zerbitzu kulturalen eta askotariko baliabide kulturalen sektorean; jolas- eta kirol-jardueren, ingurumenaren eta aire zabaleko jardueren eta zerbitzu turistikoaren sektorean.

LANBIDE ETA LANPOSTU GARRANTZITSUENAK HAUEK DIRA:

- Animatzaile soziokulturala.
- Haur eta gazteendako denbora librerako hezkuntzako koordinatzailea, zuzendaria edo hezkuntza proiektuen arduraduna.
- Dinamizatzaile komunitarioa.
- Kanpalekuetako, gazte-aterpetxeetako, kolonia-etxeetako, haztegi-eskoletako, gaztetxeeko gela eta natura eskoletako zuzendaria.
- Teknikari komunitarioa.
- Gau-emanaldien eta ikuskizunen animatzailea.
- Elkarte sektorerako aholkularia.
- Hoteleko animatzailea.
- Kultura zerbitzuetako teknikaria.
- Turismoko gunetan aire zabaleko jolas jardueren animatzailea.
- Gazteendako berriemailea.
- Animazio turistikoko departamentuko burua.

LANBIDE MODULUAK



CENTRO INTEGRADO ESCUELA
DE EDUCADORAS Y EDUCADORES
HEZITZAILE ESKOLA
IKASTETXE INTEGRATUA

LANBIDE MODULUAK

1. MAILA

ORDUAK

Astean | Guztira

INGELES I	2	60
ESKU-HARTZE SOZIALAREN METODOLOGÍA	3	100
AISIA ETA DENBORA LIBREKO JARDUERAK	4	130
TALDE DINAMIZAZIOA	4	130
ANIMAZIO TURISTIKOA	4	130
LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA	3	100
GAZTEENDAKO INFORMAZIOA	3	100
ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA GAZTEKIN	4	130
ANIMAZIO SOZIOKULTURALAREN TESTUINGURUA	3	110

LANBIDE MODULUAK

2. MAILA

ORDUAK

Astean | Guztira

LEHEN SOROSPENAK	2	60
INGELES I	3	100
ANIMAZIO ETA KUDEAKETA KULTURALA	5	160
ANIMAZIO SOZIOKULTURAL ETA TURISTIKOKO PROIEKTUA	3	100
GARAPEN KOMUNITARIOA	3	100
ENPRESA ETA EKIMENA	2	70
LANTOKIKO PRESTAKUNTZA	12	430

1



Lanbide-Inguruneetako Prestakuntza lehen ikasturtetik

2



Metodologia Aktiboetan oinarritutako Ikaskuntzak

3



Prestakuntza-laguntza Pertsonalizatua